




**DBH**

**2. MAILA**

**IKASLEA**

**ITEM LIBERATUAK**

**IKASTEN ETA  
PENTSATZEN IKASTEKO  
KONPETENTZIA**



**ISEI-IVEI**  
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



**ISEI-IVEI**  
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA SAILA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

## **Argitaratzailea: ISEI-IVEI**

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias, 9-3°

48015 Bilbo

Tel. 94 476 06 04

info@isei-ivei.net

www.isei-ivei.hezkuntza.net

**2019ko otsaila**

## EDUKIA

I. IKASTEN IKASTEKO KONPETENTZIAREN ITEMEN ADIBIDEAK.....	5
1.1. AZTERKETA .....	5
3.2.2. BAT, BI ETA... GYM.....	9
2. IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASTEKO KONPETENTZIAREN ITEMEN ADIBIDEAK .....	17
2.1. ERDI AROKO GIZARTEA .....	17



# I. IKASTEN IKASTEKO KONPETENTZIAREN ITEMEN ADIBIDEAK

## I.1. AZTERKETA

### AZTERKETA

Umma DBHko 2. mailan ikasten ari da. Ingeles-azterketa izango du eta ondo prestatuta eraman nahi du. Horretarako hainbat gauza kontuan izan beharko du. Lagundu iezaiozu:



01

**Noiz hasi beharko luke ikasten?**



- A. Gaur hasi, egunero zerbait egin eta ordu berean hobe.
- B. Erraza bada, nahikoa du bezperan ikastearekin.
- C. Ez da ahalegindu behar, aurreko ebaluazioan Ingelesa gainditu zuelako.
- D. Beste taldean jarritako azterketa ikusi ondoren, azterketa prestatu.

02

**Ummak leku batean ikasi nahi duenean, aurretik mahaia prestatzea gustatzen zaio. Ingeleseko ohiko materialez aparte (liburua, apunteak...), zure ustez, zer gehiago beharko luke?**

- A. Sakelako telefonoa, hiztegia eta musika-tresna, edozein momentutan erabili ahal izateko.
- B. Hiztegia besterik ez; musika-tresna eta sakelako telefonoa ez ditu behar.
- C. Hiztegia, telefonoa badaezpada ere piztuta eta musika-tresna itzalita.
- D. Zerbait jateko, horrela ez du atsedenik hartu beharko.



03

**Ummak egun hauetan gauz ikastea erabaki du, etxeakoak oheratu eta gero, trankil egoteko. Zer iruditzen zaizu? Zergatik?**

- A. Zuzena. Horrela, arratsalde denbora izango du lagunekin lasai egoteko.
- B. Zuzena. Horrela, denak ohean egonik, inork ez du molestatuko.
- C. Okerra, egunero klasera joateko oso goiz jaiki behar duelako.
- D. Okerra, gauz txateatzen edo telebista ikusten egotea hobe delako.



04

**Ummak gogoratzen du iaz ikasle batzuk kexatu zirela, denbora luzean ikasten egonez gero, bizkarreko mina izaten zutelako.**

**Tutoreak gomendio bat eman zien. Zein izan zitekeen gomendio hori?**

- A. Ondo eserita egotea eta tarteka minutu batzuetan ibiltzea.
- B. Denbora luzean ikasi behar badute, hobe da etzanda egitea.
- C. Aulkian egonez gero, hobe da hankak zintzilik izatea, askatasun gehiagoz mugitu ahal izateko.
- D. Lehen hanka bat ipurdi azpian ipini eta gero bestea, noizean behin hanken kokapena txandakatuz.



05

Ummaren etxean ohitura dago urtebetetzean bi gauza oparitzeko eta horietako bat ikasketekin zerikusia izateko.

Sorpresa izaten da. Aurten flexoa izan da. Zergatik uste duzu horrela egiten dutela?

- A. Horrela erraza delako, eta ez dute hainbeste pentsatu behar.
- B. Etxe horretan ikasteari garrantzi handia ematen diotelako.
- C. Beren gurasoak irakasleak direlako.
- D. Logelari ikasteko lekuaren itxura emateagatik.



06

Ummaren ikaskideak, Julenek, ikasi behar duena grabatu egiten du, gero entzuteko. Berak dio ondo datorkiola. Zer iruditzen zaizu?

- A. Alper hutsa dela, ez irakurtzeagatik egiten duelako.
- B. Ondo, horrela aldi berean beste gauza bat egin dezake.
- C. Ohitura txarra dela, arreta gal dezakeelako.
- D. Egokia, berari emaitza ona ematen diolako.





### 3.2.2. BAT, BI ETA... GYM


01

Ariketa edo jolas bat azaltzerakoan, hitzak erabiltzeaz aparte marrazkiak erabil ditzakegu.

Gizakiaren irudikapena modu askotan egin daiteke. Behean dituzu Gorputz Hezkuntzako irakasleak eman dituen argibideak irudi sinpleena egiteko.

Argibideak jarraituz, ezker aldean zure panpina irudikatuko duzu. Oinarrizko eredua jantzi edo apaindu nahi baduzu, pertsonalatuagoa geratuko da. Baina gogoratu, proportzioak zaintzea da garrantzitsuen.

#### Nire panpina



#### Panpina irudikatzeko argibideak

- Burua gorputzaren  $1/6$  izango da eta borobil baten bidez irudikatuko dugu.
- Enborra marratxo baten bidez adieraziko dugu eta gorputz osoaren  $2/6$  izango da.
- Gerria edo aldaka borobil txiki baten bidez irudikatuko dugu.
- Besoa erditik artikulatuta dagoen marra bat izango da. Horren luzera, osoaren  $2/6$  izango da, eta erdian ukalondoaren artikulazioa adierazteko puntu lodi bat irudikatuko dugu.
- Zangoa gorputzaren  $3/6$  suposatzen duen beste marra artikulatu batek irudikatuko du. Hemen ere erdian belaunaren artikulazioa adierazten duen puntu lodi bat irudikatuko dugu.

**Ariketa hau egiteko argibideak jarraitu behar izan dituzu. Horrelakoetan emaitzak konprobatzen al dituzu lana burutu ondoren? Pauso guztiak eman dituzun egiaztatzen duzu normalean?**

- A. Ez, lan bat bukatu ondoren aurrera jarraitzen dut atzera begiratu gabe.
- B. Batzuetan bai, batez ere lana zaila denean; bestela ez.
- C. Bai, emaitzak beti konprobatzen ditut.
- D. Bai, baina soilik irakasleak eskatzen duenean.

**02****Nola baloratuko zenuke egin duzun panpina?**

- A. Siplea, argibideak jarraitu ditut, besterik gabe.
- B. Saiatu naiz originala egiten, argibideak jarraitzeaz gain apaingarri batzuk jarri dizkiot eta.
- C. Itsusia atera zait, argibideekin nahastu naizelako.
- D. Nire gustuko panpina egin dut, nahiz eta argibideak zehatz-mehatz jarraitu ez ditudan.



Zein kiroletan konpontzen zara hoberen?

Galdera hori erantzun baino lehen garatuen dituzun gaitasun fisikoak zeintzuk diren jakin behar duzu.


Lau dira oinarrizko gaitasun fisikoak: indarra, abiadura, malgutasuna eta erresistentzia.

**Oinarrizko gaitasun fisikoak**

<b>Indarra</b>	Pisu bat jasotzeko edo erresistentzi bati aurre egiteko gaitasuna da.
<b>Abiadura</b>	Mugimendu bat edo desplazamendu bat ahalik eta denbora laburrenean egiteko gaitasuna da.
<b>Malgutasuna</b>	Gure gorputzeko atal desberdinak askatasunez mugitzeko gaitasuna da.
<b>Erresistentzia</b>	Esfortzu bat denbora luzez mantentzeko gaitasuna da.

Dakizunez, gaitasun fisikoen maila hobetu daiteke entrenamenduaren bidez.

Adinarekin ere maila hori aldatzen da:



03





**Zure esperientzian oinarrituta, jaiotzen garetik orain zeuk duzun adinera arte...**

- A. Gaitasun fisikoak hobetzen joaten dira.
- B. Gaitasun fisikoek behera egiten dute.
- C. Gaitasun fisikoak berdin mantentzen dira.
- D. Gaitasun fisiko gehienak hobetzen joaten dira, baina ez denak.

04

Kiroletan gaitasun guztiek parte hartzen duten arren, kirolaren arabera gaitasun bat besteen gainetik nagusitzen da. Adibidez, maratoian erresistentziak beste gaitasunek baino garrantzi handiagoa izango du.

Ondorengo marrazkietan kirol batzuk agertzen dira. Horietako bakoitzean **nagusitzen den gaitasun fisikoa zein den** erabaki ondoren, bete ezazu beheko taula “X” baten bidez. Gogoratu kirol bakoitzeko bat besterik ez duzula aukeratu behar.



	Abiadura	Erresistentzia	Indarra	Malgutasuna
a) Alpinismoa				
b) Jaurtiketa				
c) Gimnasia				
d) Boxeoa				
e) Txirrindularitza				
f) Lasterketa (50m)				

05

Jenny 2. mailako neska bat da. Lehen Hezkuntzan zenean, eskola-kiroletan parte hartzen zuen. DBHra pasatu zenean, kirola uztea

erabaki zuen, musikarekin jarraitzea nahiago zuelako.

Aitziber haren laguna da eta “Txori Eder” mendizaleen elkartekoa da. Bi eguneko mendi-martxa prestatzen ari dira elkartean, eguneko 6 ordukoa gutxi gorabehera. Oraindik hiru aste falta direnez, lagunei parte hartzeko gonbitea pasa die.

Jennyk ez du inoiz mendian gaupasa egin; beraz, gustura joango litzateke. Baina kezkatuta dago, aspalditik ez baitu ariketarik egin.



**Zein aholku emango zenioke mendi-martxan ondo ibiltzeko?**

- A. Besterik gabe parte hartzea.
- B. Astean hiru egunetan entrenatzea, gorputza prestatzen joateko.
- C. Aurretiko igandean mendira joatea, 4 orduko ibilaldia egitera.
- D. Ez du merezi ezer egitea: hiru astetan ez du hobetzeko denborarik izango.

06

Jennyren urtebetetzean mendiko botak oparitu zizkioten etxeokok eta oraindik ez ditu estreinatu. Mendi-martxara eraman nahi ditu. Zer egingo zenuke zuk bota berriekin?



- A. Mendi-martxako egunean lehen aldiz erabili, besteek ikusteko zein politak diren.
- B. Mendira joan aurretik, hiru asteetan zehar eraman, arratsaldeetan.
- C. Aitziberren ahizparenak eraman, oin-zenbaki bera du eta.
- D. Aurretiko igandean mendira eraman, 4 orduko ibilaldia egiteko.





## 2. IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASTEKO KONPETENTZIAREN ITEMEN ADIBIDEAK

### 2.1. ERDI AROKO GIZARTEA

#### ERDI AROKO GIZARTEA



Errexikako ikastetxean gaur DBHko 2. mailako ikasleak Erdi Aroa ikasten ari dira. Hori dela eta, irakasleak testu bat eman die garai hartako gizartearen funtzionamenduz ideia nagusiak identifikatzeko.

Hauxe da testua:

#### ERDI AROKO GIZARTEAREN ANTOLAMENDUA

*“Erdi Aroko Elizak zioenez, hiru gizaki ordena edo estamentu zeuden, eta bakoitzak bere eskubideak, betebeharrak eta bizimodua zituen. Horrela, batzuek (kleroa, latinez ‘oratori’) otoitzari emanda bizi behar zuten, beste batzuen (noblezia, latinez ‘bellatori’) zeregina borrokatzea zen, eta hirugarren taldekoek (nekazariak, latinez ‘laboratori’) lurra landu egin behar zuten. Gizarteak egoki funtzionatzeko, ezinbestekoa iruditzen zitzaien hiru estamentuen arteko harremanak onak izatea, elkarren mende baitzeuden.*

*Elizaren arabera, hiru ordenak (noblezia, kleroa eta nekazariak) Jainkoak ezarriak ziren, eta, beraz, inork ez zituen zalantzan jartzen.*

*Noblezia eta kleroa pribilegiatuak ziren; alde batetik, lege arrunta ez zitzaien aplikatzen (delitu berberaren aurrean zigorrak ezberdinak zituzten) eta, beste alde batetik, ez zuten lanik egin behar (alderantziz, ez-pribilegiatuak lan egitera behartuta zeuden). Estamentu batean edo beste batean egotea jaiotzak erabakitzen zuen (familia, sexua, lehen seme-alaba izatea) eta, nahiz eta Erdi Aroko estamentuak guztiz itxiak ez izan, oso zaila zen maila soziala igotzea.*

**Iturriak:**

<http://www.anakel.com/liburua/ikusi/gizarteziak/2eso/4/6/1> eta  
[https://es.wikipedia.org/wiki/Edad\\_Media](https://es.wikipedia.org/wiki/Edad_Media)

01

**Zuk testua irakurri ondoren, zer gomendatuko zenieke Errexikako ikasleei testua ulertzeko?**

- A. Buruz ikastea paragrafo bakoitza.
- B. Hitz ezezagunak hiztegian bilatzea.
- C. Testuarekin erlazionatutako marrazkiak bilatzea.
- D. Ideia nagusia bereiztea eta beste ideiekin lotzea.

02

**Irakurri berriro testua eta adierazi hurrengo taulan zer motatako ideia diren: ideia nagusiak edo bigarren mailako ideiak.**

	IDEIA NAGUSIA	BIGARREN MAILAKO IDEIA
A. Apaizek otoitzari emanda bizi behar zuten.		
B. Erdi Aroan hiru gizaki estamentu zeuden.		
C. Elizaren arabera, hiru ordenak (noblezia, kleroa eta nekazariak) Jainkoak ezarriak ziren.		
D. Pribilegiatuei lege arrunta ez zitzaieela aplikatzen.		
E. Nekazariak latinez 'laboratori' esaten da.		

03

**Ideia nagusia identifikatzeko, zer izango zenuke kontuan?**

- A. Testuan agertzen diren esaldi luzeak.
- B. Testuaren esaldi sinpleak eta laburrak.
- C. Testuaren hasierako eta azkeneko esaldiak.
- D. Testuaren izenburua eta horrekin lotutako informazio orokorra.

04

Zure ustez, hurrengo irudi hauen artean zein da egokiena adierazteko testuaren ideia nagusia?

**A****B****C****D**

- A. A irudia.
- B. B irudia.
- C. C irudia.
- D. D irudia.

### ERDI AROKO GIZARTEAREN ANTOLAMENDUA

*“Erdi Aroko Elizak zioenez, hiru gizaki ordena edo estamentu zeuden, eta bakoitzak bere eskubideak, betebeharrak eta bizimodua zituen. Horrela, batzuek (kleroa, latinez ‘oratori’) otoitzari emanda bizi behar zuten, beste batzuen (noblezia, latinez ‘bellatori’) zeregina borrokatzea zen, eta hirugarren taldekoek (nekazariak, latinez ‘laboratori’) lurra landu egin behar zuten. Gizarteak egoki funtzionatzeko, ezinbestekoa iruditzen zitzairen hiru estamentuen arteko harremanak onak izatea, elkarren mende baitzeuden.*

*Elizaren arabera, hiru ordenak (noblezia, kleroa eta nekazariak) Jainkoak ezarriak ziren, eta, beraz, inork ez zituen zalantzan jartzen.*

*Noblezia eta kleroa pribilegiatuak ziren; alde batetik, lege arrunta ez zitzairen aplikatzen (delitu berberaren aurrean zigorrak ezberdinak zituzten) eta, beste alde batetik, ez zuten lanik egin behar (alderantziz, ez-pribilegiatuak lan egitera behartuta zeuden). Estamentu batean edo beste batean egotea jaiotzak erabakitzen zuen (familia, sexua, lehen seme-alaba izatea) eta, nahiz eta Erdi Aroko estamentuak guztiz itxiak ez izan, oso zaila zen maila soziala igotzea.*

05

**Hasierako testua irakurri ondoren, zuk nola beteko zenuke hurrengo taula, hitz hauek erabiliz:**

- a- noblezia
- b- zeregina
- c- otoitz egitea
- d- laborator
- e- lan egitea
- f- bellator
- g- gizartea
- h- kleroa
- i- borroka egitea

**TAULA**

(1) -----	(6) -----
(2) ----- edo orator	(7) -----
(3) ----- edo (4) -----	(8) -----
nekazariak edo (5) -----	(9) -----

**Zenbaki bakoitzari dagokion hizkia idatzi**

Erantzunak	
Zenbakiak	Letrak
(1)	g
(2)	h
(3)	a
(4)	f
(5)	d
(6)	b
(7)	c
(8)	i
(9)	e

06

**Zergatik aipatzen da Jainkoa gizarte honen antolamenduan?  
Aukeratu Errexikako ikasleen erantzun egokiena:**

**“Testuan Jainkoa aipatzen da...**

<p><b>Xabier:</b> ... Erdi Aroko jendea asko joaten zelako mezatara”.</p>	<p><b>Nekane:</b> ... Erdi Aroan Biblia erabiltzen zutelako”.</p>
<p><b>Jazmin:</b> ... Erdi Aroko gizartea Jainkoak ezarrita zegoela uste zutelako”.</p>	<p><b>Ian:</b> ... Erdi Aroan kleroa zegoelako”.</p>

- A. Xabier.
- B. Nekane.
- C. Jazmin.
- D. Ian.

07

**Errexikako Gizarteko irakasleak hurrengo egunean ikasleei kontrol bat ipiniko die, baina batzuei gaia ikastea kostatzen ari zaie. Zure iritziz, zein da biderik eraginkorrena ikasle horiek gaia ikasteko?**

- A. Ideiak bilatu eta erlazionatu.
- B. Liburutegira joan lasaiago egoteko.
- C. Etxean mahai on bat eta argia izan.
- D. Testua behin eta berriro ozenki irakurri.

08

**Testuko hitz batzuk zailak dira buruz ikasteko. Adibidez: goi-kleroa, noblezia, oratori, bellatori, laborator, aristokrazia... Irakasleak eskatu die hitz-zerrenda hori buruz ikastea. Zer egingo zenuke azkarrago gogoratzeko?**

- A. Hitz-zerrenda hiztegian bilatzea.
- B. Hitz-zerrenda hiru aldiz irakurtzea.
- C. Hitz bakoitzarekin esaldi bat egitea.
- D. Latinezko hitzak irakasleari galdetzea.

*Irudien iturria:*

[https://es.wikipedia.org/wiki/Edad\\_Media](https://es.wikipedia.org/wiki/Edad_Media)